

Auto-Asegurua

Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua



Aseguru entitatea: **Generali Seguros y Reaseguros, S.A.U. (DGSFP C-0467)**

Produktua: **Generali ON Nekazal Ibilgailuak**

Dokumentu honetan gure produktuari buruzko informazioaren laburpena eskaintzen da. Kontratu aurreko informazioa proiektuarekin batera emango da eta kontratuari buruzko informazio osoa, aldiz, aseguruaren kontratuarekin batera.

Nolakoa da aseguru mota hau?

Asegurua traktoreen, motokultoreen, uzta makinaren eta nekazaritzako atoiaren jabeen eta gidariei zuzenduta dago eta trafikoko istripu baten kasuan hirugarrenei eragindako kalte galerak eta aseguratutako ibilgailuak, gidariak edota bidaiariak jasandako kalteak ordaintzeko betebeharrari erantzuteko helburua du.



Zer aseguratzen da?

- ✓ Derrigorrezko erantzukizun zibila: lege ezarritako mugaren arabera estaldura.
- ✓ Borondatezko erantzukizun zibila: 50.000.000 € arte.
- ✓ Suteen erantzukizun zibila: 150.000 € arte.
- ✓ Defentsa penala: babes juridikoa eskaintzen du (muga: 3.000 € abokatua eta prokuradorea askatasunez aukeratzeko).
- ✓ Kalteen erreklamazioa: erantzuleari egindako erreklamazio adiskidetsu edo judiziala (muga: 3.000 € abokatua eta prokuradorea askatasunez aukeratzeko gero).
- ✓ Isunak: trafikoko arau hausteengatik ezarritako administrazio zehapenei aurre egiteko aholkularitza.
- ✓ Gidariaren istripuak: heriotza, ezintasun iraunkorra eta osasun laguntzako gastuak.
- ✓ Fidantza eratzeko, 35.000 €-ko mugarekin ezbehar bakoitzeko.

Aukeraturako modalitateak barne hartzen dituen bermeak:

- Erabateko galera
- Ibilgailuari eragindako kalteak
- Lapurreta
- Beiren haustura
- Sutea

Hautazko estaldurak:

- Kargaren erantzukizun zibila: 150.000 € istripu bakoitzeko.
- Nekazaritzako lanen erantzukizun zibila.

Aseguratutako zenbatekoak: adierazitakoez gain, baliteke zenbait kasutan kalte ordainen beste muga batzuk egotea.



Zer ez dago aseguratuta?

Derrigorrezko erantzukizun zibila:

- ✗ Aseguruak ez ditu barne hartuko aseguratutako ibilgailuan edo hark garraiatutako gauzetan eragiten diren kalteak, horretarako berariazko estaldurak kontratatu ezear.

Gainerako estaldurak:

- ✗ Gidaria edari alkoholodunen, drogen, toxikoen, estupefazianteen edo substantzia psicotropikoen eraginpean dagoela eragindako kalte galerak.
- ✗ Gidariak baliadun gidabaimenik ez duenean edo gidabaimena kentzeko agindua bete ez duenean eragindako kalteak.
- ✗ Erregelamenduzko xedapenak, hala nola garraiatutako pertsona kopurua, hausten direnean eragiten diren kalteak.
- ✗ Ibilgailua lasterketa, lehiaketa, apustu edo erronkaren batean parte hartzen ari dela eragindako kalteak.
- ✗ Ibilgailuak zirkulatzea debekatua dagoen lekuetan edo portu eta aireportu barrutien eremuan zirkulatzen ari dela eragindako kalteak.
- ✗ Aseguratutako ibilgailuak materia sukoi, leherkor edo toxikoak garraiatzean eragindako kalteak.
- ✗ Matxura mekanikoak, erabilerak eragindako higadura edo eraikuntzako akatsak.
- ✗ Pneumatikoei eragiten dieten kalteak.

Oro har:

- ✗ Aseguruaren Kontentsazio Partzuergoak (aseguruaren eremuan hainbat funtzio, hala nola arrisku katastrofikoaren estaldura, betetzen dituen enpresa erakunde publikoak) estaltzen dituen arriskuak.



Ba al dago murrizketarik estaldurari dagokionez?

- ! Erabateko ezbeharren kasuan (konponketen kostua autoaren balioaren % 75 baino altuagoa denean), prestazioa eskurapen balioa baino txikiagoa izan daiteke.
- ! Zenbait bermeren kasuan, aseguratua bere gain hartu beharko du kalte ordainen zenbatekoaren zati bat (frankizia).



Non balio du estaldurak?

- ✓ Europako Esparru Ekonomikoan (Alemanian, Austrian, Belgikan, Bulgarian, Zipren, Kroazian, Danimarkan, Eslovakian, Eslovenian, Espainian, Estonian, Finlandian, Frantzia, Grezian, Hungarian, Irlandan, Italian, Letonian, Lituania, Luxenburgon, Maltaan, Herbeheretan, Polonian, Portugalen, Erresuma Batuan, Txekiar Errepublikan, Errumanian eta Suedian) eta berme hitzarmen aldeaniztuneko kide diren estatuetan, baita Marokon ere. Honako berme hauek, ordea, lurralde eremu propioa dute, kontratuan adierazitakoaren arabera: defentsa penala, kalte eta isunen erreklamazioa eta nekazaritzako lanen erantzukizun zibila.



Zein dira nire betebeharrak?

- Aseguratuak kontratazioa baino lehenago egindako galderari erantzutea eta emandako informazioa aldatuko balitz, aldaketen berri ematea; esaterako, ibilgailua 25 urtetik beherako norbaitek gidatzen bada edo gidariren baten gidabaimenaren antzintasuna 2 urte baino gutxiagokoa bada.
- Ordainketa kontratuan adierazitako baldintzetan egitea.
- Prestazioa eskatzea eta aseguratua behar duen informazioa ematea.



Noiz eta nola egin behar ditut ordainketak?

Lehen kontratazioa egiterakoan eta hurrengoak, alde aurretik, kontratuan aurreikusitako egunean. Ordainagiriak banku helbideratze bidez ordaintzen dira, beste modu bat adostu ezean.



Noiz hasten eta amaitzen da estaldura?

Asegurua kontratuan adierazitako egunean eta orduan hasi eta amaitzen da, "Nola desegin dezaket kontratua?" atalean adierazitakoaren kalterik gabe.



Nola desegin dezaket kontratua?

Kontratatzeko unean: kontratua urrutitik (telefonoz, Internetez, posta elektronikoz edo antzeko bideak baliatuta) egin bada, aseguratzaileari jakinarazpen fede emaile bat bidalita egin diezaiokezu uko kontratuari, aurretiko informazioa eta kontratu dokumentazioa jasotzen duzunik 14 eguneko gehieneko epean.

Berritu aurretik: kontratuan urtero berrituko dela ezartzen bada, kontratua berritzeari uko egin diezaiokezu; horretarako, aseguratzaileari idatziz jakinarazi beharko diozu, gutxienez, berritze data baino hilabete lehenago.